



|  |  |      |
|--|--|------|
| <b>abarrots</b><br>'zaratotsa, burrunba, herotsa'      | «...pentsatu zuen eskua estutu ziela, nazioaren jai baten <b>abarrotsean</b> , eta tronpeta eta banderez inguratutik...» | (90) |
| <b>ailorbe</b><br>'usain handiko landarea'             | «... <b>ailorbe</b> , gorotz, egur erre usaina zerien haien jantziei...»   | (17) |
| <b>aisia</b><br>'denbora librea'                       | «...ostatu eta kafetegietan Erromako urrezko <b>aisiaz</b> gozaten ziren hiruzpalau gaizkilerekin...»                    | (95) |
| <b>aitaren egin</b><br>'Gurutze Santuaren keinua egin' | «Baina ni faszioa ikusten dudanean <b>aitaren egiten</b> hasten naiz eta...»   | (21) |
| <b>amildu</b><br>'erori, jausi'                        | «...eskuko kartera jauzi egin zitzaien, eta kartera gainera <b>amildu</b> zen geldiro...»                                | (17) |
| <b>arrabiatu</b><br>'amorrutan jarri, haserretu'       | «—Neuk esnatuko zaitut, bai horixe — <b>arrabiatu</b> zen sargentua—...»   | (19) |
| <b>auzimaisu</b><br>'epailea'                          | «... <b>auzimaisu</b> ahul eta ustelak beren karguetatik kendu zituzten, funtzionario esanekoak lekuz aldatu...»         | (54) |
| <b>bahetu</b><br>'bahetik igaro, aztertu'              | «...arratsean itaunketa bat egin nahi baitzion, eskuratutako elementu guztiak elkartu eta <b>bahetu</b> ondoren...»      | (79) |
| <b>bilbatu</b><br>'haria hari artetik zeharkatu'       | «...haren izatea bera <b>bilbaturik</b> zeukan adiskidetasun eta interes ehundura oso bat zirpil zitekeelarik...»        | (51) |
| <b>bilbe</b><br>'zeharkako harien multzoa'             | «Gehienetan laguntasun eta interes <b>bilbe</b> horretatik kanpoko pertsonei zegozkien haren isilpeko esanak...»         | (51) |
| <b>birao egin</b><br>'madarikazioka hasi'              | «Kobratzaileak <b>birao egin</b> zuen: azukre kolorea hartuta zeukan aurpegia, dardarka ari zen...»                      | (17) |
| <b>debileta</b><br>'haga' (cabrestante)                | «—Nerbioak <b>debileta</b> baten sokak bezain tinko dauzkat orain...»  | (29) |
| <b>dizdizari</b><br>'distiratsua, distirantea'         | «...gure onetik ateratzen gaituen argi <b>dizdizari</b> bat bailitzan...»  | (19) |
| <b>doilorkeria</b><br>'bilaukeria'                     | «...harremana argia zen, poliziek <b>doilorkeriak</b> egitera behartzen zuten...»  | (34) |
| <b>erantsi</b><br>'gehitu                              | «... <b>eranstean</b> zuen zehaztasun bakoitzaren ondoren, ukitu bakoitzaren ondoren...»                                 | (31) |
| <b>erdeinu</b><br>'mesprezua, gutxiespena'             | «—Hiru hankako mahaian —esan zuen Diegok <b>erdeinuz</b> ...»  | (64) |
| <b>erneguka</b><br>'suminduraz, amorru bizian'         | «...aieneka eta <b>erneguka</b> egon ohi ziren...»   | (18) |
| <b>esaneoko</b><br>'txintxoa, aginduak betetzen        | «... <b>auzimaisu</b> ahul eta ustelak beren karguetatik kendu zituzten, funtzionario esanekoak lekuz aldatu...»         | (54) |
| <b>gizateria</b><br>'gizakiak oro har, taldea'         | « <b>Gizateriaganako</b> errespetuz, esan nahi dut...»   | (50) |
| <b>grinagabe</b><br>'joran edo irrika gabe'            | «Parmako arratsalde <b>grinagabea</b> zen hura...»   | (99) |
| <b>harilkatu</b><br>'haria biraka bildu'               | «...gogoeta hauek <b>harilkatzen</b> zihoan jadanik S.ra bidean...»  | (55) |
| <b>hobi</b><br>'hilobia, zuloa'                        | «...orain, aldiz, isilik, aurpegiak menderik mendeko isiltasun baten <b>hobitik</b> atereak bezala...»                   | (18) |
| <b>hots egin</b><br>'deitu, dei egin'                  | «...karabineroei <b>hots egin</b> behar diegu...»  | (17) |
| <b>hozki</b><br>'hortzetako ondoeza, sentsazioa'       | «...bere pentsamendu bakoitza gaiztakeriazko hazi bat da, ni bezalako bati ikaraz <b>hozki</b> emateko modukoa...»       | (70) |



|  |  |      |
|--|--|------|
| <b>hozkituta</b><br>'hozkia sentiturik'              | «...aran mikatzak janda hortzak <b>hozkituta</b> dituenaren aurpegia zuen...»  | (27) |
| <b>hozminezko</b><br>'hotzak zurrundutako,           | «...hauskortasun <b>hozminezko</b> itxura ematen zuten zuhaitz, soro, harkaitzek...»                                   | (38) |
| <b>ibi</b><br>'igarotzeko tartea'                    | «...eta gau okerrago baten <b>ibia</b> igaro beharko zuen oraindik...»   | (55) |
| <b>igarriezin</b><br>'nabariezina, agerikoa ez dena' | «...solasaldi bat, dioena eta ez dioena, hitz erdiz egina, brodatu baten atzealdea bezain <b>igarriezina</b> ...»      | (25) |
| <b>imintzioka</b><br>'keinuka, aieruka'              | «...esan zuen Giuseppe Colasbernak, eta anaiak eta bazkideek <b>imintzioka</b> baieztatu.»                             | (25) |
| <b>inarrosi</b><br>'astindu, jipoitu'                | «...oihuak operazaleen bizkar hezurra hotzikara batez <b>inarrosi</b> zuenez geroztik...»                              | (37) |
| <b>inausle</b><br>'inausten duena                    | «Bistaz ezagutzen zuten, herrikoa ez zen <b>inausle</b> baten emaztea zen...»  | (22) |
| <b>iraungi</b><br>'indarra galdu, amaitu'            | «Gogoetak, sortu eta loa berez <b>iraungitzen</b> zen sugarrean deusezten ziren gogoetak.»                             | (79) |
| <b>irredento</b><br>'garaitu gabea'                  | «Moralaz eta legeaz harantzago, errukiaz harantzago, giza energiako masa <b>irredento</b> bat zen...»                  | (90) |
| <b>irrikatu</b><br>'gogoz desiratu'                  | «...bere subofizialen arabera, aparteko botere bat <b>irrikatu</b> zuen, jarduteko aparteko askatasuna.»               | (54) |
| <b>irritsu</b><br>'desiozkoa, grinazkoa'             | «...andreak alde egin zuen, bere eszelentziaren begirada <b>irritsua</b> atzean zuelarik.»                             | (75) |
| <b>islatu</b><br>'ispilatu'                          | «...gizonaren irudia indargabetu ondoren, legea legearen ispiluan <b>islatzen</b> da.»                                 | (84) |
| <b>itzalezko</b><br>'errespetuzkoa'                  | «Sizilia honen ahotsa don Mariano Arena izango da, mafiosoen gaineko <b>itzalezko</b> —eta itzalpeko— gizona.»         | (13) |
| <b>itzalpeko</b><br>'ezkutukoa'                      | «Sizilia honen ahotsa don Mariano Arena izango da, mafiosoen gaineko itzalezko —eta <b>itzalpeko</b> — gizona.»        | (13) |
| <b>jaidura</b><br>'joera'                            | «"Salataria"rena, apur bat <b>jaiduraz</b> , (...) zigorrik gabe aritzeko pribilegioa ematen ziolakoan egiten zuen...» | (30) |
| <b>jauzi egin</b><br>'salto egin'                    | «...ilun jantzitako gizona, ointokira <b>jauzi egitekotan</b> zela, zintzilik geratu zen une batez...»                 | (17) |
| <b>jelosia</b><br>'bekaizkeria'                      | « <b>Jelosiagatik</b> hil dute Colasberna, dio batek: eta senar jeloskorren izena jarri du.»                           | (23) |
| <b>jendilaje</b><br>'jendaila, jende txarra'         | «... <b>jendilaje</b> hori hiltzeko moduko gauzak...»  | (28) |
| <b>katu</b><br>'su armetako kakoa'                   | «Atzeko eserlekuan, D'Antona brigadierrak kainoia leihotik aterata zeraman metraileta, hatza <b>katuan</b> .»          | (38) |
| <b>kuzkurtuta</b><br>'uzkurtuta, batu-batu eginda'   | «...jaio aurreko ametsen bezala <b>kuzkurtuta</b> zegoen gorputza, heriotzaren emasabel ilunean.»                      | (55) |
| <b>lagun hurko</b><br>'norberaren hurrengo'          | «...baizik eta bere prestutasunagatik, <b>lagun hurkoaganako</b> maitasunagatik, bere jakinduriagatik...»              | (57) |
| <b>lukurrero</b><br>'ospe txarreko tratularia'       | «...orain, ordea, jendeak zekiela behintzat, <b>lukurreroen</b> bitartekaria bainoez.»                                 | (30) |
| <b>mikatz</b><br>'mingotsa, heldu gabea'             | «...aran <b>mikatzak</b> janda hortzak hozkituta dituenaren aurpegia zuen...»  | (27) |
| <b>mirestu</b><br>'harriturik, zurturik'             | «—Zer, ba? —galdetu zuen opil saltzaileak <b>miresturik</b> eta jakinminez...»   | (20) |



|  |   |       |
|--|---|-------|
| <b>ninbo</b><br>'aureola'                            | «Lumazko ohe-estalki batez eta erdeinuzko <b>ninbo</b> batez bildurik, andreak alde egin zuen...»                           | (75)  |
| <b>ondo</b><br>'oso, hagitz'                         | «Baina <b>ondo</b> elkarte kaskarra izango litzateke...»  | (24)  |
| <b>orpoz orpo</b><br>'hurbil-hurbil, hur-hurrean'    | «...ezinegonean eta urduri zebilela, zakur bat <b>orpoz orpo</b> sentitzen duenaren antzera...»                             | (52)  |
| <b>partisau</b><br>'gerrilaria'                      | «...horixe falta nian, <b>partisau</b> ibilitako batekin topo egitea!»  | (22)  |
| <b>patu</b><br>'zoria'                               | «Baina mafia eta karabeneroen artetik, alde bien artean mugitzen baitzen haren <b>patua</b> , etor zekiokkeen heriotza.»    | (32)  |
| <b>potolo</b><br>'ederra, bete-betea'                | «...gezurra iruditzen zitzaielarik hain gertakari <b>potoloa</b> aurkitu izana zortzi orduetako txolartea betetzeko.»       | (18)  |
| <b>prantatu</b><br>'prestatu'                        | «Neskek otartekoak <b>prantatu</b> zituzten.»   | (104) |
| <b>sofrikario</b><br>'zigorra'                       | «...beste gizonei ezarri ahal zaien <b>sofrikarioa</b> zenbat eta handiagoa izan, orduan eta biziagoa.»                     | (33)  |
| <b>sumin</b><br>'heserrezkoa'                        | «...galdetu zuen gogortasun <b>sumin</b> batez.»  | (90)  |
| <b>topatu</b><br>'aurkitu, idoro, ediren'            | «...errukizko eta erlijiozko erantzun bat <b>topatzen</b> zuena hura jasotzen zuen gizonaren gogo-bihotzetan.»              | (54)  |
| <b>txikizio</b><br>'sarraskia, triskantza'           | «Norbaitek etxean engainatzen dutela eta <b>txikizio</b> bat egiten du.»  | (48)  |
| <b>txolarte</b><br>'denbora tartea'                  | «...gezurra iruditzen zitzaielarik hain gertakari potoloa aurkitu izana zortzi orduetako <b>txolarte</b> betetzeko.»        | (18)  |
| <b>unatu</b><br>'nekatua, akitua'                    | «Parmako arratsalde grinagabea zen hura (...) argi <b>unatu</b> batek hunkitua.»  | (99)  |
| <b>urratu</b><br>'arrakaldu, pitzatu'                | «...esan zuen gidariak, gogoratzeko ahaleginagatik burua <b>urratu</b> beharrean.»  | (18)  |
| <b>xuxurlatu</b><br>'ahapeka, isilean esan'          | «...beren siziliar bihotzetan musikaz <b>xuxurlatuta</b> iristen ziren kapitainaren hitzak.»                                | (42)  |
| <b>zapuzturik</b><br>'ia haserre, mukerturik'        | «—Ederki —esan zuen sargentuak, <b>zapuzturik</b> baina.»   | (45)  |
| <b>zer ikusiko egon</b><br>'kuriostatez begira egon' | «...eta karabineroaak hasi ziren han <b>zer ikusiko zeudenak</b> bultzatzen plaza inguruan zabaltzen ziren kaleetarantz...» | (18)  |
| <b>zimur</b><br>'tolesdura'                          | «Eta bitartean gogoan zerabiltzan Apeninoko <b>zimurretan</b> , (...) geratu ziren "salatari" haiek...»                     | (31)  |
| <b>zirpildu</b><br>'harildu, haria atera'            | «...eman zien karabineroei tiratzeko hari bat, hartatik (...) interes ehundura oso bat <b>zirpil</b> zitekeelarik...»       | (51)  |
| <b>ziztagarri</b><br>'sarkorra, akuilukaria'         | «Elur busti <b>ziztagarri</b> bat hasi zuen, zeru zuriak elur erauntsi luzea agintzen zuen.»                                | (103) |
| <b>zorrotzarri</b><br>'sega zorrozteko harria'       | «— <b>Zorrotzarria</b> eskuz estutzea bezala da, ez da ezer ateratzen...»   | (26)  |
| <b>zuritu</b><br>'justifikatu'                       | «...bat-batean sentitu zuen ondoezaren medioz, bere burua <b>zuritzearren</b> pentsatu zuen eskua estutu ziela...»          | (90)  |
| <b>zutabe</b><br>'oinarria, garrantzizkoena'         | «...S.ko Karabinero Koartelaren <b>zutabea</b> baitzen...»  | (20)  |